BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3638

AGINDUA, 2013ko uztailaren 23koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Sestaoko udalerriko Vega Galindoko erkidegoko araudiko 60 etxebizitza tasatu esleitzeko prozedura bukatzeari buruzkoa.

EGITATEAK

1.– 2011ko urtarrilaren 12an, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.ri eman zitzaion Sestaoko udalerriko Vega Galindoko erkidegoko araudiko 60 etxebizitza tasatu sustatzeko behin-behineko kalifikazioa (espediente-zenbakia: EB2-1856/10-LT-000).

2.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 9ko Aginduaren bidez, hautaketa-prozesuari hasiera eman zitzaion eta etxebizitza horiek esleitzeko zenbait espezifikazio zehaztu ziren.

3.– 2011ko azaroaren 10ean zozketa egin zen, eta ez da batere onarpenik jaso.

4.– 2013ko ekainaren 3an, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra E.A.k uko egin zion Sestaoko udalerriko Vega Galindoko erkidegoko araudiko 60 etxebizitza tasatu sustatzeko behin-behineko kalifikazioari. Beraz, etxebizitzak ez dira eraikiko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak eman behar du agindu hori, hala aurreikusita dagoelako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatzen duenez, gerora sortutako arrazoiengaitik jarraitu ezinda egoteak ere eragin dezake prozeduraren bukaera. Nolanahi ere, ematen den ebazpena arrazoitu behar da.

3.– Bestalde, lege beraren 42.1 artikuluaren bigarren idatzi-zatiak dioenez, preskripzioa gertatu, eskubideari uko egin, prozedura iraungi edo eskaeran atzera eginez gero, baita prozeduraren xedea gerora desagertzen denean ere, gertatutako ingurumariak adieraztea, horixe izango da ebazpena, beti ere, jazotako egitateak eta aplika daitezkeen arauak zehaztuta.

4.– Behin-behineko kalifikazioari eta Sestaoko udalerriko Vega Galindoko erkidegoko araudiko 60 etxebizitza tasatu eraikitzeari uko egitea gerora sortutako arrazoia da, ezinezko egiten baitu etxebizitza horiek esleitzeko 2011ko uztailaren 9ko Aginduaren bidez hasitako prozedurari jarraipena ematea. Ondorioz, prozedura bukatzea dakar.

Horregatik guztiagatik, eta aipatutako arauak eta orokorrean aplikatzekoak direnak ikusirik, hau

EBAZTEN DUT:

Gerora sortutako ezintasuna gertatu dela deklaratzea, hain zuzen ere, Sestaoko udalerriko Vega Galindoko erkidegoko araudiko 60 etxebizitza tasatu esleitzeko prozedurari jarraitzeko, eta beraz, prozedura hori bukatutzat ematea.

Ebazpen honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 23a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.